

Mikel Goiaingeruaren parrokiako
kanpandorreari buruzko liburua idatzi du
Jose Ramon Arrazolak

**"Beti liluratu
izan nau
kanpandorrearen
edertasunak eta
bere proportzioen
handitasunak"**



'Txondorraren bueltan' ekimena AZKEN TXANPAN

- > **Maiatzean** egurra karriatu eta txondor-plaza nahiz ikazkinen etxola prestatzeko lanak egingo dituzte **auzolanean**.
- > **Ekainaren lea** ixutuko dute txondorra, San Martinen.

Azken asteotan San Martin zuhaitzian ibili den herritar bat baino gehiago harrituko zen ermita aurrealdeko egur pilak ikusita. Bada, datozen asteetan txondorra egiteko erabiliko den pago-egurra da, izan ere, iazko udazkenean abiatu zen 'Txondorraren bueltan' ekimena azken txanpan sartu baita. Maiatzean zehar txondor-plaza eta ikazkinen etxola prestatuko dituzte ermitaren eta errearen arteko zelai guzuean, eta ekainaren lea dago aurreikusita txondorrari su ematea.

'Txondorraren bueltan' ekimena iazko azaroan jarri zen abian, garai batean Oñatin garrantzia handikoa izan zen ikazkintza eta txondorgintzaren inguruko ezagutza jaso, elkarbanatu eta iraunarazteko asmoz. Eta helburu horrekin hainbat auzolan, irteera, hitzaldi eta proiektio antolatu dituzte azken hilabeteotan. "Jende askok parte hartu du orain arte antolatu ditugun auzolanetan eta gustura gaude", adierazi digute ekimenaren sustatzaileek; "pausoz-pauso ari gara txondorra egiteko prozesua osatzen, herritarrekin batera, bidea egin ahala ikasiz. Saiaitu gara, gainera, lana eskuz egiten, garai bateko tresna edo lanabesak erabiliz —enborrak mozteko trontza eta aizkora, egurra karriatzeko



Txondorra burutzeko erabiliko den pago-egurra San Martinen dago pilatuta



Maiatzean zehar txondor-plaza eta ikazkinen etxola prestatuko dituzte San Martinen. Ondoko argazkian, 1890-1940 artean Aloña-azpin egon zen ikazkinen txabola bat ikus daiteke.



San Martingo ermitaren aurrealdeko berdegunean jasoko dute txondorra eta ikazkinen txabola

Auzolanerako deia

'TXONDORRAREN BUELTAN' ekimena azken txanpan sartu da. Txondorra egiteko erabiliko den egurra San Martinen dago, jada, baina, orain, maiatzean, lan ugari egin beharko da: egur hori moztu eta bringaatu, ermita osteko belar-gunera eraman, txondor-zuloa zuritu, txondorra jaso, txondorrari su eman ostean berau zaintzeaz (gau eta egun) arduratuko diren lagunentzako txabola eta egonlekua egokitu...

Beraz, ekimenaren sustatzaileek dei egiten diete herritarrei esku bat botatzera. Astero hiru auzolan-saio egingo dituzte: astearte eta asteazkenetan arratsaldez (16:00-20:00) eta larunbatetan goizez (9:00-gosetu arte). Beraz, laguntzeko eta, bide batez, txondorra nola egiten zen ikasteko prest eta gogoz dauden herritarrak ager daitezela egun horietan San Martingo ermita ingurura.

AUZOLANAK MAIATZEAN

- **Astearte eta asteazkenak:**
16:00-20:00
- **Larunbatak:**
09:00 - Gosetu arte

Maiatza osoan zehar egingo dira txondor-plaza prestatzeko auzolanak. Lagundu nahi dutenak ager daitezela San Martinera.

behorrak...—, eta oso aberasgarria izaten ari da".

AZKEN TXANPA

Maiatzarekin batera, azken txanpan sartuko da proiektua. Datozen asteetan txondor-plaza eta txondorgintzan jardungo dutenentzako etxola prestatu behar dituzte, eta txondorra bera egiteko egurra tolestu, jakina.

Lanaren zati bat aurreratu dute, jada, txondorra egiteko erabiliko den egurra —Artiako herri-basoetatik ateratako 30 bat tona pago-egur— San Martin zuhaitzian daukate, baina, hala ere, lana gogotik egin beharko da maiatzean zehar (egurra zatitu eta bringaatu, ermita osteko gunera eraman, txondor-zuloa zuritu...). Horregatik, auzolanerako deia luzatu dute beste behin (goiko taulan informazioa). Ongietorriak izango dira laguntzeko prest dauden herritar guztiak.

Ustekaberik ez bada, ekimenaren 1erako prest egongo da txondorra eta egun horretan ixutuko dute, festa giroan. Hortik aurrera, bizpahiru aste beharko dira egurra egosteko, eta, dena ondo bidean, amaieran 7 bat tona egurikatz ateratzea espero dute. Bien bitartean, antolatutako bisitak egingo dira ikastetxeekin, baina txondor-plazarako sarbidea zabalik egongo da bertaratu nahi duten herritar guztientzat.



Ekimen aberasgarria

'Txondorraren bueltan' ekimenaren antolatzaileak oso pozik daude orain arteko ekintzek izan duten erantzunarekin: orbela batzeko, egurra mozteko edota egurra karriatzeko antolatu diren auzolanetan jende askok parte hartu du. Gainera, ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan, lan gehienak eskuz egiten saiatu dira, lehengo eran.

'Halako kanpandorre ederra eraiki zutenei eta gerora mantentze lanak egin dituztenei omenalditxoak egin nahi izan diet'

Parrokiako kanpandorreari buruzko liburua idatzi du Jose Ramon Arrazolak. Nortzuk izan ziren sustatzaileak, nola eraiki zuten, erabilitako harriaren jatorria, kostuak, kanpakiak, erlojuak, gerora egin izan diren mantentze lanak eta beste hainbat kontu jakingarri jaso ditu



Ba al dakizue noizkoa den Mikel Goiingeruaren parrokiako kanpandorra? Eta zenbat denbora behar izan zuten jasotzeko eta nola egin zituzten lanak orain dela 240 urte? Nondik eta nola ekarri zuten dorrea eraikitzeko harria? Eta ze kostu izan zuen eta nola ordaindu zen? Edota zenbat neurtzen duen zehatz-mehatz?

Bada, galdera horien eta beste askoren erantzunak aurkituko dituzue Jose Ramon Arrazolak idatzi duen *La Torre Campanario de la Iglesia parroquial San Miguel Arcángel de Oñati* liburuan. "Beti liluratu izan nau kanpandorrearen edertasunak eta bere proportzioen handitasunak, eta liburu honen bidez omenalditxoak egin nahi izan diet baliabide oso mu-



DATU INTERESGARRIAK

Noiz eraiki zen

1779-1784 artean, 5 fasetan

Arkitektoa

Manuel Martín de Carrera

Altuera

53,76 m. gurutze puntara

Materiala

10.000-11.000 harri gurdikada; 460 kg. bakoitza

Harrobiak

5 harrobiko harria erabili zen: Azkontegiko eta Olabarrietako kareharria, Narriako eta Artiako hareharria, eta Bergarako harri bolkanikoa

Kostua

340.000 erreal edo 30.000 dukat inguru. Kondeak 60.000 erreal (%18-19) ordaindu zuen. Arkitektoak 35.700 erreal jaso zituen.

gatuekin halako dorre bikaina eraiki zuten sustatzaile, tekniko eta langile guztiei, eta gerora egin izan diren mantentze lanetan parte hartu duten herritar guztiei", aitortu digu Arrazolak berak. Oñatiko parrokiako kanpandorrearen inguruan han-hemenka argitaratu izan direnak laburbiltzeaz gain, Oñatiko udaleko, Donostiako elizbarrutiko eta Gipuzkoako Protokoloen artxibategietan aurkitutako hainbat datu, agiri eta argazki-irudirekin osatu du liburu mamitsu hau.

Hainbat urteko lanaren emaitza da liburua eta kanpandorreari buruz jakin beharreko guztia aurkituko dugu bertan, agiri, argazki eta irudi ederrez hornitua. Lehenengo zatian dorrearen eraikuntzarekin lotutako infor-



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS





Parrokiako dorre zaharraren (1779 aurrekoa) birsorkuntza, kondearen etxea aurrean duela



Parrokiaren eta abade-etxearen inguruak XX. mende hasieran

mazioa azaltzen da: noiz eta nola erabaki zen dorre berria jasotzea; zergatik erabaki zen kareharria erabiltzea, garai hartako herriko eraikin nobleetan ez bezala; nola egin ziren lanak; ze kostu izan zuten, nola ordaindu zen...

Kanpandorrea eraikitzeko erabili zuten harriari buruzko informazio zehatza ere ematen da liburuan: zein harrobitatik atera zuten, nola garraiatzen zuten... Martin de Carrera arkitektoari eta honek Oñatin egin zituen beste esku-hartzeei buruzko in-

formazioa ere badakar. Eta, jakina, kanpandorreak dituen bi elementu nagusiei —erlojua eta kanpaiak— buruzko informazioa ere ezin zen falta: erlojuaren eboluzioa, kanpaien fabrikazioa, kanpai motak eta kanpai-hots ezberdinen esanahia....

Kanpandorrean egin izan diren mantentze lanei buruzko informazioa ere aurkituko dugu. Azken atalean kanpandorreari buruzko dokumentuak eta dorrea irudikatu duten argazkilari eta margolari ezberdinen artelanak erantsi ditu. Liburu ederra, benetan.

Advertisement for ULMA. The background is a photograph of a mountain landscape with a devil character (Babesle Nagusia) sitting on a rock in the foreground. A large red banner with white text is overlaid on the left side. The text on the banner reads: "Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!". At the top right, the text reads: "Elkarrekin bidea eginez" and "ULMA, 2024KO ALOÑA TXIKI LASTERKETAREN BABESLE NAGUSIA". The ULMA logo is in the bottom right corner.

Elkarrekin bidea eginez
ULMA, 2024KO ALOÑA TXIKI LASTERKETAREN BABESLE NAGUSIA

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!

ULMA



Amaia Irizar, Debagoieneko Mankomunitateko Enplegu teknikaria

"Lanbide Heziketako laneratze tasa oso altua da; zenbait ziklotan %100ekoa"

> Lanbide Heziketako 7 ikastetxe daude Debagoiengan, horietako 2 Oñatin, eta 1.610 ikasle daude matrikulatuta maila desberdinetako 34 ziklotan

> Maiatzaren 6tik 24ra irekiko da 2024/25 ikasturterako aurre-matrikula epea

Debagoieneko Mankomunitateak eta eskualdeko Lanbide Heziketako zazpi ikastetxeek LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA antolatu dute aurten ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Lanbide Heziketa ezagutzera ematea eta lan-merkatutarako aukera bezala aurkeztea zen helburua. Mankomunitateko Enplegu teknikari Amaia Irizarrek azaldu digu zer den lanbide heziketa eta zein aukera ditugun gure eskualdean.

Zer da Lanbide Heziketa?

Lan merkatuarekin lotura estua duen ikasketa programa da. Bi urtetan lanerako prestatzen ditu ikasleak. Gaur egun LHko zazpi ikastetxe daude Debagoiengan, eta guztien artean 45 ziklo eskaintzen dituzte, familia edo arlo profesional ezberdinetakoak: 'Adiministrazioa eta kudeaketa'; 'Fabrikazio mekanikoa'; 'Elektrizitatea eta elektronikoa'; 'Informatika eta komunikazioa'; 'Instalazio eta mantentze lanak'; 'Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak'; 'Osasungintza'; 'Jarduera fisikoa eta ki-

rolak'; 'Gizarte eta kultura zerbitzuak'; 'Merkataritza eta Marketina'; 'Ostalaritza eta Turismoa'.

Maila ezberdineko zikloak daude, ezta?

Bai. Oinarrizkoak, Erdi mailakoak eta Goi mailakoak. Oinarrizko zikloak DBH gainditu ez duten 16-17 urteko gazteei zuzenduta daude. Graduatua eta oinarrizko lanbide titulua lortzen da eta, gainera, erdi-mailako ziklo bat ikasteko atea zabaltzen du.

Erdi-mailako ziklo bat ikasteko DBH titulua eskatzen

da, eta Goi-mailako bat ikasteko, Batxilergoko titulua edo aurrez erdi-mailako ziklo bat egina izatea. Bestela, Sarbide Probak gaindituta ere badago erdi- edo goi-mailako zikloak egiteko aukera.

Orain, gainera, erdi- edo goi-mailako zikloa amaitu ostean Espezializazio kurtsoak egiteko aukera ere badago. Lanbide Heziketako master modukoak dira, eta lan merkatuko lanbide sofistikueterako eskatzen den kualifikazio maila lortzen da horien bidez. Gaur egun, industriari lotutako lau espezializazio kurtso —*Adimen artifiziala eta BigData; Fabrikazio adimenduna; Forjaketa prozesuen diseinua eta ekoizpena; eta Industria Mantentzearen digitalizazioa*—, eskaintzen dira gure eskualdean, eta hurrengo ikasturtean beste kurtso bat ere ('Eragiketa-teknologia inguruneetan zibersegurtasuna') jarriko da martxan.

Lanbide batzuetan nahikoa da erdi mailako ziklo bat edukitzea lanean hasteko, baina gure inguruko koope- ratiba gehienetan goi mailako zikloa eskatzen dute, gutxienez, bazkide egiteko.

Praktikei garrantzi handia ematen zaie Lanbide Heziketan, ezta?

Bai. Ziklo batek 2.000 ikastordu irauten du, gutxi gora behera, eta horietatik %20 a, 360-400 ordu bitarte erabiltzen dira praktikak egiteko enpresetan. Lehen esan dugun moduan, lan-merkatuaren errealitatekin oso hurbil dauden ikasketak dira, eta sektore desberdinen beharrei erantzuten dieten langile kualifikatuak prestatzea da LHren helburua.

Orain, gainera, *Dual* sistemen bidez ikasketak eta lana partekatze-ko aukera

dago ziklo gehienetan. Bi modalitate daude: *Dual Orokorra* eta *Intentsiboa*. Bestalde, *Erasmus+* programari esker praktikak Europako enpresa ezberdinetan egiteko aukera ere eskaintzen dute zenbait ikastetxek.


Zein da enplegagarritasun maila Lanbide Heziketan?

Oso handia, orokorrean. Ziklo batzuetan %100ekoa. Enpresa batzuk ikasleak hartu nahi izaten dituzte praktike-tan, Dual sistemaren bidez, eta horietako asko gero bertan geratzen dira lanean.

Inportantea da jakitea, gainera, Lanbide Heziketak ez duela inongo biderik ixten, ezta?

Hori da. Goi mailako ziklo bat amaitu ostean, beste ziklo bat edo unibertsitate mailako gradu bat ikasteko aukera dago. Bide guztiak irekita geratzen dira. Batxilergoa amaitu ostean unibertsitatera joatea izaten da ohikoena, baina Lanbide Heziketa ere izan daiteke aukera ona eta, ondoren, nahi izanez gero, unibertsitatean jarraitu. Alderantziko bidea egiten dutenak ere badaude; alegia, unibertsitate ikasketak amaitu ostean ziklo bat egitea erabakitzen dutenak, formazio praktikoa lortzeko. Inportantea da ulertzea ibilbide posible ezberdinak daudela nahi dugun tokira iristeko, eta horietako bat dela Lanbide Heziketa.

Aipatu nahi nuke, gainera, ikasle gazteentzat ez ezik, langabezian dauden pertsonentzat edo, lanean egonda ere, kualifikazio maila hobetu nahi duten langileentzat ere aukera ona dela Lanbide Heziketa. Azken batean, bi urteko ikasketa plana da, ez da luzea, eta frogatuta dago prestakuntza funtsezkoa dela laneratze prozesuetan.



www.fpdebagoienalh.com

Lanbide Heziketaz jakin beharrekoa

Goiko helbidean aurkituko duzue Lanbide Heziketari eta, zehazki, Debagoiena eskualdeko LHko zazpi ikastetxeetako eskaintzari buruzko informazioa. Maila, arlo profesional edo lortu nahi den tituluaren arabera bilaketak egiteko aukera eskaintzen du, zer eta non ikas dezakegun ikusteko. Ikasleen eta praktikak eskaintzen dituzten enpresetako ordezkarien testigantzak ere ikus daitezke, eta, oro har, Lanbide Heziketaren inguruan izan ditzakegun galdera edo zalantzak argitzeko informazioa aurkituko dugu bertan, baita ikastetxe bakoitzeko ate-irekien egutegia ere.

"Praktikek garrantzia handia dute Lanbide Heziketan. Dual sistemaren (Orokorra edo Intentsiboa) bidez ikasketak eta lana partekatu daitezke"

Oraintsu arte gizonezkoak izan dira nagusi Lanbide Heziketan. Ari al da aldatzen joera hori?

Bai, baina poliki poliki. Debagoieneko LH zentroetan matrikulatuta dauden 10 ikasletik 7 gizonezkoak dira, eta desoreka hori are handiagoa da ZTIM (Zientzia, Teknologia, Informatika eta Matematika) arloko zikloetan. Beraz, animatu egin nahi ditut emaku-

"Ziklo industrialetan oraindik ere gizonezkoak dira nagusi (10etik 7) Lanbide Heziketan. Beraz, emakumeak animatu nahi ditut urratsa ematera"

meak LHko aukera kontuan hartzera.

Aurre-matrikula epea maiztaren 6tik 24ra irekiko da. Garrantzitsua da kontuan hartzea, ezta?

Bai, LHko ziklo bat ikasteko aukera buruan darabiltenentzat garrantzitsua da aurre-matrikula betetzea. Ez zaitu ezertara derrigortzen, baina, ondoren, matrikula epea irekitzen de-

"LHko ziklo bat egiteko aukera pentsatzen ari direnentzat garrantzitsua da aurre-matrikula egitea, lehentasuna dutelako gero"

nean, lehentasuna dute aurre-matrikula egin dutenek. Online egin daiteke, edo lehen aukera bezala markatutako zikloa eskaintzen den ikastetxera joanda.

LHko ikastetxeetan egiten diren ate-irekien jardunetara joatea ere gomendatuko nuke, zentro bakoitzak eskaintzen dituen baliabideak eta ikasketa programa bertatik bertara ezagutzeko, (webgunean dago egutegia).



Hermansoloñaren bazkide eta laguntzaileetako batzuk, elkartearen batzar orokorrean

Lanean jarraitzen du HERMANSOLOÑAK

Aurten ere 40.000 euro bideratuko ditu Argentina eta Saharako elkartasun proiektuetara

Kale Zaharreko arropa biltegia itxi zenetik, 2020ko urrian, Hermansoloña (*Hermanamientos Solidarios de Oñati / Oñatiko Anaitze Solidarioak*) taldearen lana ez da hain agerikoa herrian, baina elkarrekin bizirik darrak, lanean jarraitzen du, eta horren erakusle da aurten ere 40.000 euro pasa bideratuko dituela Argentinako eta Saharako elkartasun proiektuetara, apirilaren 19an egin zuten batzar orokorrean azaldu bezala.

Laguntzaren zatirik handiena, 30.000 euro inguru, Argentinara bideratuko du, non Hermansoloñak 23 urte daraman lanean, Oñati eta Jose C. Paz he-

Argentinako elkartasun proiektuetan lanean daraman 23 urteetan 750.000 euro inbertitu ditu Hermansoloñak, eta 550 tona material bidali du 35 kontainerretan

rrien arteko anaitzeaz geroztik. Hango San Jose Providente eta Toki Eder Euskal Etxearekin elkarlanean proiektu ugari jarri ditu martxan (jantokiak, tailerrak, baratzeak...) Oñatirekin sendetutako hiriko eta ingurutako jen-

de pobreaki laguntzeko, eta Jujuy probintziako herri indigena eta jende beharatsu askori ere laguntzen die, Agustindar-Laterandarrek bertan duten parrokiaren bidez.

Lan bikaina egiten ari da Hermansoloña, eta zenbaki edo kopuruak oso esanguratsuak dira: 23 urteko ibilbidean 750.000 euro inbertitu ditu Argentinako elkartasun proiektuetan eta 550 tona material (arropak, oinetakoak, botikak, ordenagailuak, askotariko tresnak...) bidali ditu 35 kontainerretan.

SAHARAKO PROIEKTUA

Hermansoloñak urteak daramatza Tindouf-eko errefuxiatu kanpalekuetan dauden sahararrei laguntzen, Oñatin bizi den saharar komunitatearen bidez, baina 2018an elkartasun edo laguntza leerro berri bat ireki zuen eta, orduz geroztik, laguntza ekonomikoa eskaintzen die behar bereziak dituzten Mahbes-eko (Smara) hainbat familiari. Urtean 12.000 euro inguru bideratzen ditu.

Aipatutakoez gain, herri mailan Hotz-Oñatirekin ere kolaboratzen du Hermansoloñak, errefuxiatuei laguntzeko ekimen ezberdinetan, eta baita Caritas edo Acesma bezalako taldeekin ere.

Hermansoloñaren diru iturri nagusia Oñatiko udala (ia 30.000 euro) da, enpresetatik (Ulmako kooperatibak, Fagor Industrial, Irizar, Orona...) ia 5.000 euro jasotzen ditu, eta bazkide-laguntzaileengandik 5.000 euro pasa. Elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie guztiei eta, bereziki, proiektu ezberdinak aurrera atera ahal izateko Oñatin eta Argentinan lan egiten duten laguntzaile-bolondres guztiei. Tamalez, Argentinako proiektuetan erreferenteak ziren bi pertsona zendu dira berriki — Luis Arregi agustinoa eta Blanca Alfonso, Joxe Erostarbe oñatiarraren emaztea —, eta gogoan izan zituzten Hermansoloñaren batzarrean.



Maite Alostui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

Ingelesezko Akademia
Listening Speaking Reading Writing



Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



Torreauzo eta Usako artean bidegorria egokitzeke pozesua abian jarri du Udalak

- > Exekuzio proiektuaren idazketa eta ondorengo lanen zuzendaritza kontratatzeke deialdia egin du
- > Ekainaren 30erako idatzita egon beharko da proiektua

Herrigune historikoaren eta Usako presaren aisialdirako eremuaren artean bidegorria egokitzeke lanen exekuzio proiektuaren idazketa eta ondorengo lanen zuzendaritza kontratatzeke deialdia egin du Udalak, 39.000 euroko oinarritzko aurrekontuarekin. Hartarako ezarritako epean hiru enpresen proposamenak jaso ditu Udalak, eta datozen egunetan egingo da behin betiko esleipena.

Hortik aurrera, enpresak ekainaren 30era arteko epea izango du exekuzio proiektua aurkezteko. Ondoren, obra bera esleitzeko prozesua jarriko du martxan Udalak, eta lanak hasten direnetik 6 hilabete inguruko epea beharko da obrak burutzeko.

2020an udalaren enkar-guz Injelan S.L.-k egindako azterlanaren arabera, San Prudentzio eta Oñati arteko bidegorriari jarraipena emanez, Torreauzo zubian abiatu eta Usako edo Zuazola zubiraino iri-



> Europako Next Generation Funtsetik 569.000 euroko laguntza jaso du Udalak proiektu honetarako

tsiko den bidegorria egokitzea da asmoa, GI-3593 errepidearen trazadurari jarraituz. Injelanen azterlanaren arabera, bidearen ezkerreko aldean (Zañarturako norabidean) egokituko litzateke Torreauzo eta Zuazola arteko bidegorri adarra —1.058 metroko luzera izango luke—, baina, esan bezala, orain enkargatu den exekuzio proiektuan zehaztu beharko da trazatua, ingurumen zein okupazio al-

detik ahalik eta eragin gutxien izan dezan.

Gainera, eranskin bezala, Exibai eta Usako baserrien artean dagoen sarbidearen azterketa ere jaso beharko du exekuzio proiektuak. Azterketa horrek, irisgarritasuna bermatze aldera, egungo zubia zabaltzeko aukerak jasoko ditu.

Udalak 569.000 euroko laguntza jaso du Europako Next Generation funtsetik proiektu hau burutzeko.

IV. Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren deialdia egin du Udalak



IV. Selma Huxley Barkham ikerketa beka emateko oinarriak eta 2024ko deialdia egitea onartu du udaleko Berdintasun sailak. Orain 30 egun balioduneko epea zabalduko da proposamenak aurkezteko, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den ondorengo egunetik aurrera. Bekak 18.000 euroko dotazioa du.

Emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko genero ikuspegidun ikerketak osatzea da bekaren helburua. Emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak ezagutarazi eta balorean jartzea, kontatu gabeko historia argitara eman eta emakumeei zor zaien aitortza egiteko. Orain arteko hiru edizioetan 'Oñatiko emakumeak errekaduta: XX. mendeko etnografia feminista', 'Bizitzak erdigunean. Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista' eta 'Oñatiko emakume-mojen izaera, bizimodua eta ekarpena' lanak burutu dira.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUB FLUTANTEAK, ARDIAK, PINTURA LANAK...





DISEÑATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOKINAK eta ASKOT GONIBAK
ILAKIA 12 B 4 esk. - 20060 UNATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Hainbat elkarterentzako dirulaguntzak

Udalak elkarte eta fundazio ezberdinei egingo dizkien diru ekarpenak onartu ditu. Hala **Arantzazu Gaur** Fundazioari 60.000€-ko ekarpena egingo dio. Egun, Arantzazulab laborategia da bere jarduera nagusia.

Bestalde, 86.850€-ko dirulaguntza emango dio **musika bandari** eta 39.762 eurokoa **Eskola Kirola eta Hezkuntza** elkarteari, biek dituen lankidetzak hitzarmenen baitan.

Era berean, 23.141 euroko laguntza emango dio Udalak **Saltoka** elkarteari —behar bereziak dituzten pertsonen laguntzeko elkarte—, egunero Bergarako Gureak tailerrera joaten diren bertako hainbat kideren garraio gastuei aurre egiten laguntzeko.

Su-detektagailuak instalatzeko laguntza deialdia

Etxebizitza partikularretan su-detektagailuak jartzeko deialdia egin du Udalak. Aurten 80 urte betetzen dituzten pertsonak eta etxean bakarrik edo 80 urte beteta dituzten beste pertsona batzuekin bizi diren herritarrek jaso ahal izango dute laguntza. Aurreko baldintza bete ez arren, mendekotasuna, isolamendua edo ageriko arriskua duten pertsonak ere jaso ahal izango dute, udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostenarekin, beti ere. Eskaearak azaroaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira HAZ bulegoan. Gaur egun herriko ia 130 etxetan daude udalak instalatutako su-detektagailuak. Instalazioaren kostua ez ezik, mantenuarena ere hartzen du bere gain Udalak. Aurtengo aurrekontua 5.100 eurokoa da.

Gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntza deialdia

Gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Oñatin egoitza ez izanda ere, herrian zerbitzua ematen edota herritik egindako zerbitzu eskaerei erantzuten dieten elkarteek ere eskura dezakete laguntza. Aurten 24.768 euroko kontu-saila dauka Udalak. Maiatzaren 8a da eskaerak aurkezteko azken eguna.

Adikzioen tratamendurako dirulaguntza deialdia

Adikzio mota ezberdinak tratatzeko Oñatitik kanpora joan behar izaten dela kontuan hartuz, garraio gastuak —tratamenduan dagoen pertsonarena eta laguntzen dion senide edo lagunarena— arintzeko laguntzak ematen ditu Udalak. Laguntzak jaso ahal izateko, tratamendua hasi duen pertsonak Oñatin erroldatuta egon behar du, edo udalerrian gutxienez hiru urtez erroldatuta dauden senideekin bizi egon behar du, eta gutxienez lau hilabete eraman behar du errehabilitazio programan



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARZUMENDIARRIETA, 40011 E.

>> Oñati gestio
heziketa

#LanerakoCertu

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Especializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazioa eta Finantzak


mondragon.edu/lanbideheziketa

IZEN-EMATEA

Maiatzak
6tik 24ra



MGEP: 664298683 // 664298704
OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943718009



Olakua auzoko urbanizazioa eraberritu eta irisgarritasuna bermatzeko proiektuarekin aurrera jarraitzen du Udalak eta, oraingo honetan, 5. Area bezala izendatutako gunean egingo dira lanak. Ondoko planoan ikusten den moduan 13, 14 eta 15 etxe-atarien inguruko eremua hartzen du 5. gunek.

A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, eremu horretan dauden oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun mugatuko pertsonentzako aparkalekuak berrituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokitzeko edo, araua guztiz bete ezin den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko.

Halakoetan ohi den eran, espaloiak zabaldu eta zorua berrituko da, eta arrapala bat ere egokituko da, 14. atari aurreko plazara iristeko.

Lan hauek baliatuz, eremu horretako saneamendu eta ur hornidura sarea berritzeko lanak ere egingo ditu Gipuzkoako Urak SA enpresak.

Guztira, 360 mila euroko (BEZ barne) aurrekontua dute lanek, baina saneamenduari dagozkion lanen kostua (15.626€, BEZ barne) Gipuzkoako Urak enpresak hartuko du bere gain.

Udalak dagoeneko lizitazioa atara du obra, eta esleipena egin ostean, ekainean ekingo zaie lanei. Proiektuaren arabera 4-6 hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

'Olakua-5' guneko irisgarritasun lanak lizitaziora atara ditu Udalak

- > Olakuako 13-14 eta 15 etxe inguruetak oinezkoen bideak eraberrituko dira
- > Lanek 360 mila euroko aurrekontua dute



Olakuako 10-D, 13-A, 13-B, 14, 15-A eta 15-B etxe-atarien inguruko oinezkoen bideak egokituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokitzeko, edota, araua bete ezin den kasuetan, egungo egoera nabarmen hobetzeko.



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✔ Heriotza	✔ Istripuak	✔ Etxebizitza
✔ Autoak	✔ Ontziak	✔ Aurrekia
✔ Biktza	✔ Osasuna	✔ Laborantza

Helbidea: Mazon 5. behe
698 16 79 84
mikel.egana@segintes.catalanoccidente.com



Europako Next Funtsetik 200.000 euroko laguntza jaso du Udalak proiektu honetarako

Udalak Girder Ingeniaritza enpresari esleitu dio aparkaleku disuasorioa eraikitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza 15.125 eurotan (BEZ barne).

Argazkian adierazten den moduan, kiroldegia eta saihebidetaren arteko gunean egokituko da aparkalekua, osasun zentroaren atzealdean dagoenaren segidan. Sarbidea ere ambulatortik izango du. Monitorizatu egingo da gunea osoa eta pantaila bat jarriko da San Juan kaleko biribilgunean, aparkatzeko lekurik ote dagoen edo beteta dagoen jakiteko. Argiteria ere ipiniko da aparkaleku berrian, eta ibilgailu elektrikoentzat bereizitako gunea ere egongo da.

Herrira iristen diren bisitarien kotxeak herrigunetik ateratzea da aparkaleku berri honen helburua. Gogoratu, Europar Batasuneko Next Generation Funtsetik 200.000 euroko laguntza jaso duela Udalak proiektu hau gauzatzeko. Oñatin landa-nortasuna duen helmuga turistikoa izanik, ingurumenean eta paisaian ahalik eta kalte txikiena egitea da disuasio-aparkaleku hauen bidez erdietsi nahi dena.

Aparkaleku disuasorioak egokitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza esleitu ditu Udalak

> Kiroldegiko kantxa urdinaren atzean egokituko dira aparkaleku disuasorioak. > Monitorizatu egingo da gunea eta pantaila bat ipiniko da biribilgunean.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

2023ko diruzaintza gerakinetik 4 milioi pasa dira 2024ko udal aurrekontura

Beste 2,3 milioi geratu dira erabilgarri, Urrutxuko zigilatzearen azken fasea burutzeko

2023ko udal aurrekontuen itxiera egin ostean, diruzaintza gerakinean dauden 6,3 milioietatik 4 aurtengo udal aurrekontuetara pasatzea erabaki du udal gobernua; 1,6 milioi txertaketa bidez eta 2,4 kreditu gehigarrien bidez. Gainerako 2,3 milioiak gordeta uztea erabaki da, zabortegi izandako Urrutxuko guneko zigilatze lanen azken fasea burutzeko.

Aurtengo aurrekontura pasako diren 4 milioiak zertara bideratuko diren ere zehaztu du udal gobernua. Alde batetik, iaztik datozen hainbat proiektu burutuko dira, baina inbertsio berriak ere jaso dituzte. Hala, adibidez, 320 mila euro bideratuko dira Zubikoa kiroldegiko kantxa urdineko teilatuan egin beharreko konponketa lanetara, itoginei eta ur filtrazio arazoei behin betiko irtenbidea emateko asmoz. Kantxarako sarrera ere egokituko dute, bide batez.

Kiroldegiarekin jarraituz, 132 mila euro bideratuko dira kantxa urdineko zein pilotalekuko argiteria hobetzeko, efizientzia energetikoaren bidean sakonduz, modu horretan. Gainera, 97 mila euro bideratuko dira kiroldegiko teilatuan eguzki



Kantxa urdineko teilatuko ur filtrazio arazoak konponduko dituzte

320 mila euro bideratuko dira kiroldegiko kantxa urdineko teilatua konpontzera; 132 mila kantxa urdineko eta pilotalekuko argiteria berritzera; eta 150 mila Eltzian igogailua jartzera

plaka gehiago jartzeko, energia berriztagarrien sorkuntzan eta autokontsumoan urrats berria emanez. Bestalde, Eltzia eraikineko irisgarritasuna hobetzeko igogailua jartzeko asmoa du Udalak, eta horretarako 150

mila euroko inbertsioa aurreikusitako du.

DATU OKERRAK

2023ko gerakinaren inguruan EAJK zabalduko prentsa oharrean zenbait datu "oker" erabili izana salatu du EH Bilduk. "Martxoaren 27an ohartarazpena egin genien arren, apirilaren 3an datu okerrak zenbait hedabidetan argitaratu ziren", adierazi du udal gobernua. "Gastuetara milioitik gora bideratu direla esan zuen EAJK, eta ez da zuzena; 863 mila euro bideratu dira, zati handiena, ia 800 mila euro, kiroldegirako eskatu zen maileguaren ordainketa urtebete aurreratzera bideratu baita. Arduraz hartu dugu erabakia, Udala egoera hobean egon dadin etorki-

zuneko erronkei aurre egin ahal izateko", argitu dute gobernuko kideek.

EAJren KRITIKA

2023ko gerakina gehienbat iaz gauzatu gabeko proiektuetara bideratzen dela kritikatu du EAJren udal taldeak, proiektu berriak egi-tea mugatzen delarik. "Zer ga urtearen itxierak bista-ko egin du, beste behin, udal gobernua konpromisoak betetzeko duen plangintza eta zehaztasun eza", adierazi dute jeltzaleek. "Gerakinaren gehikuntzen balioa 4 milioi eurokoa da, abenduan onartutako 23 milioiko aurrekontuaren %17a, eta gure ustetan zifra altuegia da". Bestalde, EAJK adierazi du udal gobernua 800 mila euro gehitu dituela gastuen partidan eta, horrenbestez, Udalaren aurrezki arrunta —autofinantzaketa ahalmena neurtzen duen zifra— 1,5 milioi eurotik (abenduko aurrekontuan) 0,6ra pasa dela, martxokoan.

Azkenik, udal aurrekontuan txertatzeko asmoz EAJK aurkeztutako proposamenak kontuan hartu ez izana kritikatu dute jeltzaleek. "Proposamenetako bat Oñati eta Elorregi artean autobus lanzadera jartzeko aurreproiektua egitea zen, baina EH Bilduk atzera bota du, Foru Aldundiaren eskumena dela argudiatuta; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, ordea, baztertu egiten du argudio hori".

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIAK ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

Gazteria sailaren dirulaguntza deialdia

Gazte-elkarteak eta gazteen sormen lana sustatzera zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Haur eta Gazteria sailak 15.000 euro bideratuko ditu aurten dirulaguntza hauetara, eta maiatzaren 20ra arteko epea dago eskaerak egiteko. Lehen deialdian diru-partida osoa agortzen ez bada, bigarren epea zabalduko da urriaren 15ean.



Kamioia salgai jarri du Udalak

Goiko argazkiko Mercedes Benz markako 4x4 trakziodun kamioia, 1833 A modelokoa, bolkete edo iraulkiduna, jarri du salgai Udalak. Hamabi urte ditu baina egoera onean dago; 7.700 orduko zerbitzua eta 58.411 kilometro ditu. Oinarritzko prezioa 40.000 eurotan finkatu da eta gorantz egindako eskaintza onenari esleituko zaio. Maiatzaren 15era arteko epea dago eskaintzak aurkezteko.

Enpresa txikien digitalizazioa sustatzeko jardunaldiak

Debagoieneko Mankomunitateak enpresa txikien digitalizazioa sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu maiatza eta ekaina bitartean. Oñatin hiru saio egingo dira: 'Sare sozialetarako bideoak sortu eta editatu mugikorra erabiliz' (maiatzak 20); 'Identifikazio digitala' (maiatzak 21); eta 'Sare sozialetarako eduki erakargarriak sortu' (maiatzak 22). Beste 8 saio ere egingo dira eskualdeko beste herri batzuetan (<https://oapr.ingenariak.eus>). Tailerrak aurrez-aurrekoak eta dohanik dira, baina izena ematea beharrezkoa da. Plaza mugatuak.

Konpost banaketa egin du Udalak

Herrian dauden zazpi auzo-konpost guneeetan egindako konposta banatu zuen Udalak apirilaren 10-11n, Agrolab enpresako laborategiko kontrola pasa ostean. Guztira, 35 herritarrek eraman zuten hamarna zaku, baratze nahiz lorontzietan erabiltzeko. Egun 208 familiak egiten dute auzo-konposta Oñatin, eta urtean 2,7 tona inguru konpost jasotzen da.





JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

2024-2025 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK

MAIATZAREN 13tik 24ra

www.jazpiazumusikaeskola.com
web orrian

2 urterekin hasi eta adin mugarik gabe

Informazio gehiago:
idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.eus
edo 943 78 31 74 telefonoan



UDALEKO SOZIOEKONOMIA DEPARTAMENTUAREN DIRULAGUNTZAK

Enpresa ekimenak sustatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Enpresa jarduera berri bat sustatu edo eskualdaketa bidez jarduerari jarraipena ematen dioten pertsonen zuzenduriko dirulaguntza deialdia egin du udaleko Sozioekonomia departamentuak.

ONURADUNAK

2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean Oñatin (Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan) alta emandako jarduerak jaso ahal izango dituzte laguntzak. Enpresak 10 langile baino gutxiago eduki behar ditu.

LAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOAK

a) Sorturiko lanpostuengatik dirulaguntza:

- Sustatzaileek sorturiko lanpostu bakoitzeko 1.500€
- Lehen sektoreko jardueren kasuan, 3.000€ sustatzaileko
- Sustatzailea emakumea denean %30eko gehikuntza
- Dirulaguntza muga onuradun bakoitzeko, 6.000€

BALDINTZA: Sustatzaileak Oñatin erroldatuta egon behar du, 6 hilabeteko antzintasunarekin, gutxienez.

b) Merkataritza sektoreko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntzak:

- Lehen urteko alokairu gastuak: 2.500€ gehienez
- BALDINTZA: Merkataritza edo hiri-merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak izatea, ostalaritzakoa izan ezik. Lokala Oñatiko hirigunean kokatuta egon behar da. Alokairu kontratua eta jardueraren titularitatea sustatzaile berriaren izenean egotea.

ESKAERA EPEAK

Eskaerak eta gainerako dokumentazioa aurkezteko azken eguna azaroaren 29a da, udaletxeko HAZ bulegoan edo erregistro elektronikoaren (www.onati.eus) bidez. Informazio gehiago: 943003198 / enplegu@onati.eus.

Pertsona langabetuak kontratatze laguntzak

Pertsona langabetuak kontratatzen dituzten Oñatiko enpresa txiki edo ertainei (50 langile baino gutxiago) zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratutako pertsonak Oñatin erroldatuta eta Lanbiden izena emanda egon behar du, eta ezin du ahaidetasunik izan enpresako jabe edo zuzendaritzarekin. Kontratuari dagokionez, berriz, mugagabea edo, gutxienez, 6 hilabeteko iraupena izan behar du —%50eko lanaldia gutxienez— eta enplegu sorrera garbia ekarri behar du berekin. Iazko uztailaren 1a eta aurtengo ekainaren 30a bitartean egindako kontratuak eskuratu ahal izango dute Udalaren laguntza.

Kontratu mugagabea eta jardunaldi osokoa bada, dirulaguntza 1.300€koa izango da. Aldi baterakoa eta lanaldi osokoa bada, 1.000€. Kontratutako pertsona emakumea bada, 300€ gehiago emango dira. Denbora partzialeko kontratuetan, lanaldiaren araberakoa izango da laguntza, eta %30eko gehikuntza aplikatuko da, kontratatutako pertsonak baldintza hauetakoren bat betetzen badu: DSBE/RGI jasotzen egotea, 35-55 urte edukitzea, edo epe luzeko langabea izatea. Enpresa eta deialdiko muga, 3.500€. Eskaearak aurkezteko azken eguna: azaroak 29. Informazio gehiago: 943003198.

Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatze laguntzak

Gizarteratze edo laneratze prozesuetatik datozen eta Oñatin erroldatuta dauden pertsonak kontratatzen dituzten enpresentzako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratu mugagabeak edo, gutxienez, 2 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak izan behar dute, %50eko lanaldiarekin, gutxienez. Iazko uztailaren 1a eta aurtengo ekainaren 30era egindako kontratuak eskuratu ahal izango dute laguntza.

Kontratu mugagabeak edo, gutxienez, 6 hilabeteko jardunaldi osoko kontratu bakoitzeko dirulaguntza 3.000€koa izango da. Bi eta sei hilabete arteko lanaldi osoko kontratua bada, 1.500€koa. Denbora partzialeko kontratuetan, lanaldiaren araberakoa izango da laguntza, eta %30eko gehikuntza aplikatuko da, kontratatutakoa emakumea bada edo 55 urtetik gorakoa.



Doako formazio ikastaroak langabe eta langileentzat

Oñati Institutuko Larraña LH zentroak langabetuei eta langileei zuzendutako doako ikastaroak antolatatu ditu, Lanbideren laguntzarekin. Hala, maiatzaren 6an hasita, **Soldadura MIG/MAG** (40 ordu) emango dute, eta ekainaren 3tik aurrera **Soldadura TIG** (40 ordu). Informazioa: 943899300 / info@onati.eus.

EH Bildu bozkatuena Oñatin legebiltzarrerako hauteskundetan

Apirilaren 21ean egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena Oñatin **3.360** bozka jasota (%56,91), duela lau urte baino 398 gehiago. EAJ izan zen bigarren bozkatuena **1.917** botorekin (-198), eta ondoren PSE-EE (**273** /+56), PP (**97** /+19), Sumar (**95**), Podemos (**72** /-114) eta Vox (**9** /-1) alderdiak.

688 602 089

Eraso sexisten aurreko telefono bidezko arreta zerbitzua jarriko du Udalak San Migel Txiki eta Errekaldeko jaietan

Maiatzaren 10-11n (San Migel Txiki) eta hilaren 24-25ean (Errekaldeko jaixak) eraso sexisten aurreko telefono zerbitzua egongo da Oñatin (22:00etatik 08:00etara), Udaleko Berdintasun sailaren eskutik. Inork erasorik jasan go balu, informazioa edo aholkularitza beharko balu, eraso bat ikusi eta nola lagundu ez baleki edo eraso baten berri eman nahiko balu, telefono honetara (688 602 089) idatzi edo deitu dezala eta pertsona bat egongo da beste aldean aholkularitza eta akonpainamendua eskaintzeko.

EMAKUMEEN ETXEA

Orain arte adostutakoa aurkezteko saioa

Bi urtetan zehar burutu den parte hartze prozesu irekian etxearen oinarria, jarduerak, parte hartzaileak, ki-deak, parte hartzeko moduak, antolatzeko modua... adostu dira, besteak beste. Bada, orain arte adostutako guztia aurkezteko saioa egingo da **maiatzaren 29an**, Eltzia topagunean, 19:00etan. Saio irekia izango da, interesa duten herri-tar guztientzat.

ZINEGOAK, Bilboko LGTBIQ+ jaialdiko film labur sorta Oñatin ikusgai, maiatzaren 22an

ZINEGOAK, Bilboko LGTBIQ+ Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia da, eta 2024ko ekitaldira aurkeztutako lanen mostra txiki bat Oñatin ikusteko aukera egongo da, udaleko Berdintasun sailak antolatuta.

70-90 minutuko emanaldia izango da eta film laburren sorta bat (gaztelarazko edo euskarazko azpitituluekin) egongo da ikusgai. LGTBIQ+ gaien inguruko filmak dira guztiak, baina Oñatin eskainiko diren laburren kasuan bereziki emakume sortzaileengan jarriko da fokua. Homofobiaren aurkako nazioarteko egunaren (maiatzak 17) inguruan antolatu da emanaldia.



Maiatzaren 22an izango da emanaldia, kultur etxean, 19:30etan

ai arizmendi ikastola **PRO**

Motibatzen zaituen aukera!

Lan bide HEZIKETA

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 6tik 24era

IZENA EMAN!

www.arizmendi.eus

- Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza**
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
- Osasun larrialdiak**
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
- Mikroinformatika sistemak eta sareak**
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
- Erizaintzako zaintza osagarriak**
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Korpus jaiari zentzu sakona emateko gonbita luzatzen digute Kofradiak eta Caritasek


> Maiatzaren 27tik ekainaren 1era **TOPAGUNEA** antolatuko dute Foruen plazan, elkartasunean oinarritutako gizartea aldarrikatzeko. Hainbat ekitaldi egongo dira bertan egunero.

'Sentitu, hunkitu... Korpus jaia iritsi da'. Horixe da Oñatiko Caritasek eta Sakramentu Santuaren Kofradiak proposatzen diguten mezua ekainaren 2an ospatuko den Korpus jaiari zentzu sakona emateko. "Jaiak emozio goxoak sortzen dituztenez, une egokia da ez soilik familian edo lagunen arten bizi-tzeko, baita harremanak eraikitzeko eta laguntza- edo maitasun-sare hori urruti dauzkaten pertsoneri hedatzeko ere", azaldu dute. "Etorkizun hobea amestuz sorterrria eta familia atzean utzi zuten pertsona migratzaileentzat, arrazoi ezberdinengatik etxerik ez



duten pertsonentzat edota seme-alabei gizar-teko parte izateko beharrezkoak eskaini ezin dizkieten familientzat nahi eta behar ditugu laguntza- eta maitasun-sare horiek".

Helburu horrekin, TOPAGUNEA jarriko dute herriko plazan maiatzaren 27tik ekainaren 1era, eta aukera izango dugu Caritasek Oñatin eta Gipuzkoan dituen zentroak eta programak ezagutzeko. Gune dinamikoa izango da, elkarrizketarako, galderak eta proposamenak egiteko eta, azken batean, pertsonak guztien eskubideak eta gizarte solidarioa aldarrikatzeko.



FABULOUS BASTERRETXEA

Haurrei zuzendutako arte lantegia egingo da Arantzazun, Basterretxearen jaiotzaren 100. urteurrenean

Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena betetzen da aurten eta, horren harira, 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendutako arte lantegia antolatu du Arantzazuko Adiskideak elkarteak, Oñatiko udala, Arantzazulab, Mauhaus estudioa eta Basterretxearen sendiarekin elkarlanean.

Bi igandetan (maiatzak 12 eta 19) egingo da tailerra, goizez (10:30-13:30) Gandiaga Topagunean. Sarrerako azalpen laburraren ostean haurrek gidatutako bisita egingo dute Kriptan, Nestor Basterretxearen margolanak ezagutzeko eta, ondoren, Gandiaga Topagunera itzuli eta arte teknika ezberdinak (pintura murala, collage-a eta eskultura) landuko dituzte. Izen-ematea (5€): 688613840 / adiskideak@arantzazu.org.

Korpus jaia, Mila Azkueren pintzeletik

Atentziona eman digu Txokolateixan ikusitako margolan batek, eta jakin dugu badagoe-la istorio bitxi bat haren atzean. Kontua da, Txokolateixan txokolatez egindako kolore-paleta bat jaso zutela, baina apurtu egin zenez margo taldekoei eman zietela opari, eta eskertza gisa, berak hain maite duen Korpus jaia irudikatzea pentsatu zuen Milak, olioia eta collage teknikak uztartuz. Detailtxo bat, besterik ez, dio berak, baina detaile polita.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

*Gure ekintzen berri emango duen atala...***>> JAPAN TOPAKETA <<**

Aldizkari honetako 316. alean (2021eko maiatzean argitaratua) "Anime, Manga, Cosplay... Japan Weekend" izenburua zuen testua argitara eman genuen. Momentu hartan arrotzak zitzaizkigun hitz horiek gure inguruan dabilzan gazte batzuren ahotan entzundakoak ziren. Konturatu ginen kultura japoniarraren influentzia eta, bertan, sortutako ikus-entzunezko zein liburu edo komikiak gero eta gazte gehiagorengana iristen zihoazela; eta hirietan ez ezik, herrietan ere komunitateak sortzen hasiak zirela. Gauzak horrela, egun batean gazte hauentzako/hauekin "zerbait" antolatzeaz hitz egiten hasi ginen, mundu honekiko gure ezjakintasunaz kontziente izanik.

Aurreko urtean, Kontzejupetik-eko 325. alean, Japan Weekend erakustazokara joango ginela iragarri genuen, lehenengoz. Otsailean eta urrian harantz abiatu ginen, Oñatiko Gaztelekuko 20 gaztez osaturiko talde batekin. Irteera horretan Bergara, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko gazteekin partekatu genuen autobusa, bazkalordua eta esperientzia, gazte hauen zaletasunari lekua eman eta harreman berriak sustatzeko asmoz. Guretzako beti izan da garrantzitsua gazteen interesak indartu eta erdigunean erreferentzia positibo berriak kokatzea.

Gauzak horrela, eta azken hilabeteotan Elgoibar, Deba eta Bergarako Gazteleketako hezitzaile eta gazteekin elkarlanean, maiatzaren 11n, larunbatean 'JAPAN TOPAKETA 2024' antolatu dugu Oñatiko Gaztelekuan. Ekitaldi honen helburua gazte hauentzako elkargune bat sortu eta gustuko duten afizioa partekatzeko aukera bat ematea da. Horretarako, marrazketa ikastaroa, eskulanak, manga-gunea, mahai jolasak, bazkaria, etab. izango ditugu bertan.

Printzipioz, LH5-6 eta DBH 1-2-3-4ko gazteei zuzenduta dago, eta izena emateko unean edo gainerako zalantzaren bat baldin baduzue, japantopaketa@gmail.com helbidera mezu bat bidal ezazue.

>> ASTE SANTUKO OPORRAK <<

Urtero bezala, Aste Santuko oporrak gure gazteekin irteera eta ekintza bereziak egiteko aprobetxatu ditugu. Hauetako batzuk Oñatitik kanpo izaten diren arren, saiatu gara aurten ere bertako txoko eta baliabideez aprobetxatuz, eskaintza interesgarriak mantentzen. Oro har, ekintzen arrakasta maila altua izaten da, hein handi batean gazteen proposamenak kontuan hartzen jarraitzen baitugu, programazioa osatzerakoan.

Martxoaren 29an, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, Kuboko taldetxo batekin Aitzulora joan ginen. Apirilaren 2an Kuboko gaztetxoekin (LH-3 eta LH-4) Gueñesen dagoen Bizkaia Park Abentura parkera joan ginen egun pasa; eta, egun berean, Topalekuko DBH-1 eta DBH-2koek, goizean, Iruña ezagutu; eta, arratsaldean, bertako Salting-az gozatu zuten.

Apirilaren 4an, berriz, Kuboko LH-5 eta LH-6koak Gasteizko Salting-era joan ziren goizez; eta, itzultzean, Gaztelekuan bazkaldu ostean, herrian zehar ginkana bat antolatu zuten. Egun berean, Topalekuko DBH-3 eta DBH-4koak Zornotzako Paintball-era eta Bilbora joan ziren.

Horrez gain, saiatu gara irteerez aparte, Gazteleku inguruan eskaintza ezberdinak antolatzen: pelikula emanaldiak, Laser Tag txapelketa, nerabeentzako ginkana, etab.

Beste behin ere, eta amaitzeko, mila esker Gazteleketik antolatu ditugun ekintzetan parte hartu duzuen guztioi!

**>> HAUR ETA GAZTERIAKO DIRULAGUNTZAK <<**

Gogoratu, dagoeneko, emantzipaziorako diru-laguntzak eskatzeko epea irekita dagoela, urriaren 11ra arte. Horiek Udaletxeko Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) edo www.oñati.eus atariaren bidez eska ditzazkeue.

Gazte elkarte eta Sormenerako diru-laguntzak, berriz, apirilaren bukaeran eskuragarri egongo direla aurreratzen dizuegu.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Azaleko jatorrizko argazkia:
Kontzejupetik.

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Maketazioa:

Abao Komunikazio Agentzia

Kolaboratzailea:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzieren erantzunkizunik.

Akatsaren zuzenketa eta argiketa

Xabier Mugartza Aiastui eta Amaia Erostarbe Letamendi / EAJ-PNVko udal-taldearen izenean

Oñatiko EAJ-PNVko udal-taldeak argitu nahi du 2023ko ekitaldi fiskalari dagozkion datu ekonomikoen inguruko prentsa-oharrean (24/03/26), akatsa zegoela. Akats horrek, espresuki, bi zifrei eragiten zien. Oñatiko EAJ-PNVk, konturatu orduko, gure sare eta plataforma digital guztietan zuzendu genuen akatsa, eta tokiko komunikabideei ere eskatu genien zuzenketa egiteko.

Gure udal-taldeak ozen eta garbi onartzen du datu ekonomikoei loturiko akatsa. Gustatzen ez zaigun arren, edonor okertu daiteke. Hala ere, egindako zuzenketa erakusten du gardentasunez eta erantzukizunez jokatu dugula. Gure jarrera argia da; irmoa ere bai.

Amaitzeko, Oñatiko EAJ-PNVko udal-taldeak azpimarratzen du aipatutako akatsak ez duela jatorrizko mezua aldatzen; ezta azalpena eta planteamendua ere, EH Bilduren udal-gobernuak onartutako 2023ko likidazioaren inguruan.

OHAR ETA DEIALDIAK



1974koen KINTTADIA

1974 urtean jaiotako 50 urteko kinttadia **irailaren 7an** izango da: triki-poteoa eta bazkaria Etxe Aundin + DJ festa. Ospakizunetan parte hartzeko 60 euroko diru-sarrera egin behar da **uztailaren 15a** baino lehen, ES65 2095 5057 40 9123663071 kontu zenbakian, edo Bizuma eginez 696 166 500 zenbakira, izen-abizenak adieraziz. Zalantzak argitzeko: zexauk1974@gmail.com.

1981ekuen KINTTO EGUNA

1981eko kinttuek (1961eko irailaren 1etik 1962ko abendura arte jaiotakuek) **maiatzaren 11n** ospatuko daue kintto eguna. Hauxe da egun horretarako plana: bisita gidatua turismo bulegoaren eskutik (12:00); Bazkaria Torre Zumeltzegi jatetxian (14:30). Izena emuteko 645 732 412 telefonora (Jabi Agirre) diar egin edo WhatsApp mezua bialdu. Izena emuteko epia **maiatzaren 6an** amaituko da.

1969koen KINTTADIA

1969an jaiotako kinttadia egingo dute **maiatzaren 25ean**, Soraluze Hotelean (bazkaria). Prezioa: Janaria bakarrik 60€; Janaria+Izarraitz 80€. Izena emateko azken eguna: **maiatzak 14**. Kontu zenbakia: ES96 0081 4257 8600 0136 5940 (Sabadell)



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Tradizioa

Pernando Mendiguren 'Perratzaile'

TRADIZIOA

Lat. *traditio, onis*

'Herri batean gorde den doktrina, ohitura eta abarren multzoa, gurasoengandik seme-alabengana pasatu dena'.

'Belaunaldiz belaunaldi egindako albisteen, literatur konposizioen, doktrinaren, errituen, ohituren eta abarren transmisioa'.

Hauek dira TRADIZIOTzat hartzen diren definizioetako batzuk.

Gure Oñati maiteko Foruen enparantzaren bi lagun berriak daude, eta batak besteari haxe galdetzen dio: zer iruditzen zaizu CORPUS CHRISTI eguneko jaia? Galdera horri erantzuteko, CORPUS jaiari buruzko hausnarketa-azalpen saio labur, baina,aldi berean, sakona egin genuen. Gure ustetan, bat gentozen biok, ospakizun erlijiosoa/zibila da, Eliza Katolikoko estamentuek, udaleko zinegotzi batzuek eta biztanleria zibilaren segmentu handi batek parte hartzen dutena.

XV. mendean —1422 urte inguruan— sortutako ospakizuna da, orduz geroztik etenik gabe egin dena, eta belaunaldiz belaunaldi DEBOZIO/TRADIZIO handiz mantendu dena.

Gure iritziz, honetan ere ados geunden, ekitaldiaren ikusgarritasuna indartu egin beharko litzateke kendu edo ezabatu ordez, herriko zenbait taldetan aipatu izan den bezala.

Gure ustez, herritarrek zuzenean eta estuki lotuta daude festa horrekin, eta gizarte zibileko zati handi baten sentimendua da, erlijio-kolektibitatea kontatu barik, jakina, hori ziurtzat jotzen baita.

Uste genuen ez dagoela antzeko ezer inguruko kilometro askotan. Espainian antzeko zerbait ospatzen da Toledon. Europar erritu katolikoa duten beste lurralde batzuen artean, Belgikan ere ospatzen dute, Brujasen, hain zuzen ere, solemnitaterik handiz.

Gure ustez, TRADIZIOAK herriak diren bezalakoak bihurtzen ditu, eta gauzak ikusteko beste modu batzuetara egiten diren aldaketak oso inportanteak izanik ere, oso garrantzitsua da ere bai gizartearen zati baten isla eta jarduteko modua izatea, TRADIZIOAK izateko modua sortzen du eta.



"Gure ustez indartu egin beharko litzateke Corpus jaiaren ikusgarritasuna, berau kendu edo ezabatu ordez, herriko zenbait taldetan aipatu izan den moduan"

Uste genuen, jaia bertan behera utziz gero, txantxikuarroi gure izatearen zerbait faltatuko litzatekeela. Dantzariak kaleetan hegan ikusteak egiten dute sentimendu hori ez desagertzea.

Uste genuen, halaber, errespetu askoz handiagoa beharko litzatekeela plazako ekitaldi nagusian, ia kanposantuko isiltasuna gorde beharko litzatekeela, alegia. Entretanimendurako elementuek, "barraka klasikoek", une horretan musika isiltzen dute, duela urte batzuk udaleko zinegotzi batek hala aginduta, CORPUS egunaren sentimendua barru-barrutik bizi zuen pertsona batek eskatu ondoren. Herri-istantzia guztietan eztabaidatu beharreko hezkuntza-arazoa dugu berau.

Horregatik guztiatik, uste genuen, eguna mantendu ez ezik, indartu ere egin beharko litzatekeela herriak eskura dituen baliabide guztiak erabiliz. Guk ere lanean jarraituko dugu horren alde, gure modu erritualean jarraitu ere.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

EGUR-LAN

AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com

www.egur-lan.es

Denboraldiko momenturik garrantzitsuenetako batean dago Malen Osa, Salomon taldeko korrikalaria. Apirilaren 20an (Japonian) eta 27an (Txinan) *Golden Trail World Series* zirkuituko aurreneko bi proba puntuagarrietan parte hartu du, eta maiatzaren 26an du hurrengo hitzordua, Zegama-Aizkorri maratoian, GTWS-eko hirugarrena. Bere aurreneko Zegama izango da, eta baita maratoi distantziako aurreneko lasterketa ere.

5. sailkatu zara Japoniako lasterketan. Zer moduz joan da? (Txinakoaren aurretik itxi genuen aldizkaria).

Egia esan, ez zen espero edo nahi bezain ondo atera. Oso hasieratik karranpak izan nituen eta gorputzak ez zidan erantzun. Neure buruarekin borroka etengabe ibili nintzen eta oso gogorra egin zen. Azkenean, egia esan, nahikoa harro egindakoaz, ez neukalako indarririk korrika egiteko eta, beraz, 5. postua lorpen handia da.

8 karrera puntuagarri daude aurtengo GTWS zirkuituan eta korrikalari bakoi-tzaren lau emaitza onenak hartzen dira kontuan azken sailkapenerako. Zein da zure asmoa?

Asiako (Japonia eta Txina) lasterketetan parte hartzea pentsatu dugu entrenatzailak eta biok, etxetik oso urruti izan arren, nire ezau-garrietarako egokiak izan daitezkeela pentsatuz. Orain, maiatzean, Zegama-Aizkorri izango naiz eta, gero, abuztuan, Poloniako *Tatra Sky* lasterketan parte hartzeko asmoa dut. Tartean, Frantzia (ekainean) eta Suitzian (uztailean) beste bi proba puntuagarri dauka, baina horietara ez naiz joango, eta irailean dira GTWS-eko



MALEN OSA ANSA Salomon taldea

"Gozatu dudala sentitzea izango da helburu nagusia Zegama-Aizkorri"

Japonian eta **Txinan** lehiatu ostean, Zegama-Aizkorri parte hartuko du Malen Osak maiatzaren 26an. Maratoi distantziako bere lehen lasterketa izango da.

azken bi proba puntuagarriak jokatu dira Estatu Batuetan, baina horiek ere baztertua daukat, gauzak ez badira okertzen behintzat. Ez dut gehiegi lehiatu nahi, urrian Suitzian jokatu den GTWS-eko finalera ahalik eta freskoen iritsi ahal izateko.

Uztailean beste karreraren bat egiteko asmoa dut, GTWS zirkuitutik kanpora, eta abuztu bukaeran Chamonixen jokatzen den Mont Blanc-eko UTMB lasterketan ere parte hartuko dut ETC (15km) distantzian.

"Badakit aurtengoa ez dela izango nire Zegamarik onena, baina oso zaila da lasterketa honi ezetz esatea. Etorkizuneko helburuetako bat bai izango da Zegama-Aizkorri irabaztea"

MALEN OSA ANSA
SALOMON TALDEA

Maiatzaren 26an Zegama-Aizkorri izango zaitugu. Zure aurreneko Zegama ez zik, maratoi distantziako zure lehen lasterketa ere izango da. Errespetua emango du horrek, ala?

Distantzia ez dut arazo ikusten. Iazko udan egin nituen 5 orduko entrenamendu saioak eta gorputzak ondo erantzun zidan. Kontua da, halako distantziek prestaketa espezifiko eskatzen dutela eta ez dut aukerarik izango. Hilabete honetan saiatuko naiz kilometro gehia-

go sartzen eta Zegamako ibilbidean entrenatzen, hor-ko erritmo eta karrerako denboretara egokitzen, baina ezin da miraririk eskatu. Badakit ez dela nire Zegamarik onena izango aurtengoa, baina hango giroa ikusita —iaz ikusleen artean egon nintzen— zaila da ezetz esatea. Zalantzak izan ditut, baina bihotzak irabazi du. Etor-kizuneko helburuetako bat bai izango da Zegama-Aizkorri irabaztea, baina aurtentzen ez; aurtengo helburua gozatzea izango da, helmugara iristea disfrutatu izanaren sentsazioarekin. Gaztea naiz oraindik.

Iaz 4. sailkatu zinen GTWSe-ko azken sailkapenean, 3. arengandik oso hurbil. Langa oso goian jarri zenuen. Presiorik sumatzen al duzu aurtentzen?

Ez. Iazkoa espero bariko emaitza izan zen. Azken finen, azken emaitza ez dago zure errendimenduaren baitan soilik. Aurkariak nola dauden ere ikusi egin behar-ko da eta, beraz, litekeena da aurreneko 10en artean sailkatuta ere pozik egotea. Denboraldiak aurrera egin ahala joango gara helburuak jartzentzen.


Aurtengo neguan mendiko eskian ere lehiatu zara, eta ez nolana. Espainiako txapelkun izan zara igoera bertikalean.

Ezusteko handia izan da, oso polita. Berria naiz oraindik mendiko eskian, teknika ikasi beharra daukat, baina igoera bertikalean ondo moldatu naiz. Neguan gehiago entrenatu nahi dut mendiko eskian, eta gauzak ondo badoaz, datorren urtean jokatuko den munduko txapelketan parte hartzeko aukera izan nezake 23 urte azpiko mailan.



XABI LETE
"4:24tik jaistera izango da helburua Zegaman"

Ondo ekin zion urteari Xabi Letek, Soronea Amma taldeko korrikalariak, *Kangas Mountain* (Half Trail - 21km/1400m+) irabazita. Gero, Elgetako lasterketan erori eta kolpe handia hartu zuen belaunean, baina sasoiko dago berriz ere. Aloñako lasterketan 2:10etik jaistera zen bere helburua (lasterketa jokatu aurretik itxi genuen aldizkaria), eta Zegama-Aizkorri izango da hurrengo erronka nagusia. Bigarren Zegama du eta gozatzea izango da helburua eta, ahal dela, bere marka (4:24) hobetzea, dortsalari eusteko beste bi urterako. Ekainean *Igualeja Sky Race* (Malaga) taldekako Espainiako txapelketan parte hartuko du Soronea Amma taldeko kideekin, eta uztailean Goierriko 2 Haundiak (90km/5500m+) lasterketa gogorrean izango da. Irailean *Desafío Urbión-en* (37km/2600m+) parte hartuko du. Munduko Skyrunning txapelketa jokatuko da bertan.



AINARA URIBARRI
"Gozatzea eta iazko denbora hobetzea izango da helburua"

Nahi bezain ondo prestatu barik iritsiko da Ainara Uribarri Zegama-Aizkorri lasterketara. Iazko udan izan zuen belauneko lesio baten ondorioz behar bezala entrenatu ezinik egon da sei hilabetez. Poliki poliki sasoia berreskuratzen ari da; Elgetako mendi lasterketan 2. sailkatu zen, martxoan, eta apirilaren 13-14an jokatutako Espainiako txapelketan ere maila onean aritu zen —11. igoera bertikalean eta 15. trailean—. Aloñako lasterketa gorritz markatuta zeukan —lasterketa jokatu aurretik itxi genuen aldizkaria— eta Aizkorriko maratoia da bere hurrengo erronka; iazko denbora (5:29') hobetzea eta, batez ere, gozatzea izango da helburua. Uda partean Alpeetako bi lasterketa egiteko asmoa du eta udazkenean *Golden Trail National Series*-eko (Espainia-Portugal) proba puntuagarriak izango dira bere helburu nagusiak.

Mendi irteera nafar erresumako gazteluetara



Aloña Mendik maiatzerako antolatutako duen mendi irteera berezia izango da, izan ere, Nabarralde elkarteak kideek gidatutako ibilaldia izango baita eta Nafarroako erresumako mugak babesten zizutzen Roita eta Sos del Rey Catolicoko gazteluak ikustera joango dira (15km. / 450m+). Ibilaldiak ez du batera zailtasunik. **Maiatzaren 19an** izango da irteera (postetxean 7etan) eta hilaren 16a baino lehen eman behar da izena Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com

Mendiko film eta dokumentalen emanaldia

Aloña Mendiren 75. urteurrenaren harira mendiko hiru film berezi ikusteko aukera izango dugu maiatzaren 24an, ostirala kultur etxean (19:00), mendi sailaren eskutik. Hauek dira filmak: '**Udalatx, Ura eta Atxa**' (Besalde elkartea), '**Oinez**' (Bira produkzioak) eta '**Zuloan Zu**' (Aloña Mendi Espeleologia taldea). Denera 90'-ko emanaldia izango da.

Bestalde, maiatzaren 9an Zuhaitz Gurrutxagaren **FutbolisTOK** bakarrizketa saioaz gozatzeko aukera egongo da Santa Ana antzokian, 19:30etan.

Panpinen pijama-festa egingo dute udal liburutegian

Duela urte batzuk irakurzaletasuna sustatzeko egin zuten ekimen bat berreskuratuko dute aurten udal liburutegian. Haurtzaroa denez irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko garai egokiena, etxe-ko txikiei luzatu nahi diete gonbita.

Ekimena honetan datza: 3 eta 5 urte arteko umeek beren gustuko panpina eramango dute liburutegira, gaua bertan igaro dezaten. Gauean festa handia ospatuko da: liburuak irakurriko dituzte, abenturak kontatu, lagun berriak ezagutu, eta liburuaren magian murgilduta, palomitak jango dituzte eta azkenean goxo-goxo egingo dute lo bata bestearen ondoan.

'Stuffed Animal Sleepover Party' edo 'Panpinen pijama-festa' izeneko proiektua 2007an sortu zen Pensylvanian (AEB). Festa honek umeengan dituen onurak ikertu egin dira eta ondorioak garbiak dira: ume gehienek, beraien panpinak irakurtzen ikusita, liburu horiek irakurtzeko eta liburutegira inguratzeko arreta eta gogoia adierazi dute. Harrezkero, mundu osoan zehar zabaldu da ekimen hau, oso emaitza arrakastatsuak jasoz.



Maiatzaren 29an jasoko dituzte panpinak, eta hurrengo egunean, **maiatzaren 30ean**, familiak panpinaren bila joango dira. Panpin bakoitzak gauean zehar aukeratu duen liburua eramango dute etxera bueltan. Ekimenean parte hartu nahi duten familiak gerturatu daitezela maiatzaren 29an liburutegira, 16:30etatik aurrera. Ez ahaztu zuen panpina! Animatu eta parte hartu!

Txerriak euskal historian izan duen garrantzia aztertu du Azpiatzuk

El cerdo en la historia de los vascos izenburua duen liburua plazaratu du Jose Antonio Azpiatzuk historialariak. Gure artean ospe edo irudi txarra badu ere, txerriak garrantzia handia izan du euskal historian, gose urteetan batez ere. Hala, XVI. gizaldian abererik ugariena omen zen gure inguruetan eta Artia mendira 1.500 txerri inguru eramaten zituzten ezkur garaian. Txerribodaren inguruan Oñatiko baserrietan zeuden usadioak ere bildu ditu Azpiatzuk, besteak beste.



'Musika Astea' ospatuko da maiatzaren 6tik 11ra

Urtero bezala, maiatzarekin batera 'Musika Astea' antolatatu du Jose de Azpiatzuk musika eskolak. Hala, maiatzaren 6tik 10era, egunero (17:00-20:00) bertako ikasleek eskainitako kontzertu edo entzunaldiez gozatzeko aukera izango dugu, Santa Ana antzokian eta Gaztelekuan.

INSTRUMENTUEN ERAKUSTALDIA

Musika Astea borobiltzeko, maiatzaren 11n musika eskolan ikas daitezkeen instrumentuen erakustaldia egingo da Gaztelekuan (11:00-12:30). Musika tresna ezberdinak probatzeko aukera egongo da eta, saioa borobiltzeko, irakasleek emanaldia eskainiko dute, 12:30etan.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saioa Oñatin

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea abian da apirilaren 26az geroztik, eta maiatzaren 17an lehen fase honetako lehen itzuliko azken saioa egingo da Oñatin, Santa Ana aretoan, 19:00etan.

OÑATIARRAK TXAPELKETAN

Sailkapen faseko lehen itzuli honetan 74 bertsolarik parte hartuko dute eta tartean dira lau oñatiar —Maider eta Urko Arregi, Aitor Tatiegi eta Urko Egaña—, eta antzuolarra izan arren, Oñatiko Txinparta Bertso Eskolan aritzen den Jon Mata. Lauk abestu dute jada, eta Urko Arregik maiatzaren 9an izango du bere saioa, Getarian. Lehen itzuli honetatik 48 onenak igaroko dira bigarrenera. Maiatzaren 25etik ekainaren 2ra egingo da bigarren itzulia eta puntu gehien batzen dituzten 34 bertsolariak sailkatuko dira udazkenean jokatu den Gipuzkoako txapelketarako.


carpintería
GARIBAI
 aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com


PINTURAS
URBIA
 MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

ZUNTZA 500Mb

+ MUGIKORRA 48GB⁶⁰

+ DEI MUGAGABEEKIN

39,90€ /HIL

AGILE TELEBISTA 6€/HIL



Eta dohainik eraman aire
bidezko TRISTAR frijigailua
edozein mugikor + zuntza tarifa
kontratatur

PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:



ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZ berrak. Doako instalazioa. Irupena 3 hilabete. Prezio honek lehenengo 12 hilabeteetarako balio du, ondoren 42,90€. Aire bidezko ... frijigailuaren opari-promozioa 2024ko maiatzaren 1etik 31ra, edo stocka amaitu arte. LIZKER Informatika dendan MÁSMÓVIL-eko edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz. Oparia, zuntza instalatutakoan eskatu daiteke. Kontsultatu gainerako baldintzak LIZKER Informatika dendan.

MÁSMÓVIL
AHORRA, SIN MÁS

Debagoieneko Haur eta Gazte abesbatzen topaketa egingo da Oñatin, maiatzaren 5ean

Oñati, Arrasate, Bergara eta Aramaioko abesbatzek parte hartuko dute. Gonbidatu bezala Donostiako **EASO Txiki**.



Santa Ana antzokian (19:00) izango da emanaldia. Sarrerak: Txokolateixan eta www.oñati.eus

Abesbatzen harrobiak landu eta sustatzeko helburuarekin, Debagoieneko Haur eta Gazte Abesbatzen Topaketa, hirugarrena, antolatu du Ganbara Faktoriak. Oñatiko Kantu Eskolako hiru taldeez gain, Aramaio, Arrasate eta Bergarako talde banak parte hartuko dute.

Ohitura denez, bailaratik kanpoko talde bat gonbidatu ohi dute topaketa hauetara, eta aurten Donostiako EASO Txiki abesbatza izango da gure artean. Talde bakoitzak bere saiotoxa eskainiko du eta, amaieran, 'Kantari bizi naiz' (J. Estes) ereserkia abestuko dute denek batera. Partaide guztiek topaketako kamiseta jasoko dute opari.

Musika giroan arratsalde alaia eta koloretsua igarotzeko aukera paregabea izango da. Santa Ana antzokian izango da emanaldia, 19:00etan. Sarrerak www.oñati.eus atarian eta Txokolateixan eskura daitezke.

PARTAIDEAK

OÑATI

- Ganbara Txiki
- Ganbara Txikitxo
- Ikastetxeak Kantari

ARAMAIO

- Papargorri Abesbatza

ARRASATE

- Goikobalu Txiki

BERGARA

- Orfeoi Gaztea

TALDE GONBIDATUA

DONOSTIA

- Easo Txiki Abesbatza



'Emakumeek idatzia' programa abestuko du Hots Abesbatzak Lizarran

Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen Hots Abesbatzak Lizarrako (Nafarroa)parrokian emango du kontzertua maiatzaren 11n (20:00), bertako musika zikloaren baitan. Berdintasun sailak antolatutako kontzertua da eta ahots zurien Oñatiko taldeak 'Emakumeek Idatzia' programa eramango du, emakume musikagileek (Eva Ugalde, Juankal Guerrero, Inge Conde, Idoia Azurmendi, Joni Jensen...) sortutako obrak abestuz.

Musika bandaren maiatzeko kontzertua, Errekalden

Hilaren 26an izango da kontzertua, '**Musika banda auzoetan**' ekimenaren baitan

Iaz hasitako 'Musika Banda Auzoetan' ekimenarekin jarraituz, maiatzaren 26an Errekalde auzoan eskainiko du kontzertua musika bandak, bertako jaiekin bat eginez. Eguerdiko 12etan izango da emanaldia, baina, aurretik, kalejira egingo dute auzoan barrena. Musika bandaren lana herriko auzoetara zabaltea da ekimenaren helburua. Programa oso bariatua izango da; erritmo latinoak (tangoa, soca...), boleroak, baladak (*Something stupid*), pop doinuak (*Nino Bravo in concert*, *Moulin Rouge*) eta euskal musika (Euskal dantzak) eskainiko dituzte Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean.



Iaz Olakuan eskainitako kontzertuko irudia SANTI MENDIOLA

'5 IZAR'

Bazkide kontzertu berezia eskainiko du Ganbara Faktoriak maiatzaren 19an

> **Ganbara Txiki, Hots** eta **Ganbara** abesbatzek, eta **Aequus Ensemble** orkestrak parte hartuko dute
> Filmetako soinu bandak izango dira protagonista eta **Dani Alvarez** kazetariak aurkeztuko du
Sarrerak (8€) Txokolateixan eta 'www.oñati.eus'



Urteroko ohiturari jarraituz, Ganbara Faktoriak 'Bazkide kontzertua' emango du maiatzaren 19an. **Ganbara, Hots** eta **Ganbara Txiki** abesbatzek eta **Aequus Ensemble** orkestrak parte hartuko dute, eta pelikuletako soinu bandak izango dira protagonista.



Abesbatza bakoitzak film bati (*West side story, Coco, Miserables*) jarriko dio musika eta, ondoren, Aequus orkestrak hainbat film eta telesailtako (*Avatar, Game of Thrones, Star Trek,*

The Lord of The Rings, Jurassic Park, Star Wars...) musika interpretatuko du. Amaia Zipitria piano-joleak, eta Susana Plumed eta Anaitz Loyola tronpa-joleek ere parte hartuko dute, Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean.

Aurkezlea ere berezia izango da, ETBko *Lan Noche D* saioiko Dani Alvarez kazetaria egongo baita fimen inguruko bitxikeriak kontatzen. Kontzertua bazkideentzat bada ere, herritar guztiak daude gonbidatuta: Parrokian, 19:30.

125 Bazkide eta Laguntzaile

'Egin dezagun kultura elkarrekin' lelopean bazkide kanpaina du abian Ganbara Faktoriak, beraien proiektua sendotu eta Oñatiren eta Euskal Herriaren izen ona estatu mailan zein nazioartean zabaltzen jarraitzeko helburuarekin.

Bi modu daude laguntzeko —Ganbarako **Lagun** (15€) edo Gabarako **Bazkide** (50€) eginez— eta, trukean, laguntzaren araberako abantailak jasotzen dituzte bazkide eta lagunek: ezkontza edo ekitaldi pribatuetarako kontratazioetan %20ko deskontua, 'Bazkide' kontzerturako sarrerak, Gabonetako zozketarako partizipazioak, aipamenak webgune ofizialean... besteak beste. Egun, 95 bazkide eta 30 lagun ditu Ganbarak (www.ganbarafaktoria.eus).



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



(*) Itten: arrastua, pista

>> URRUSULAKO KONTUAK (VIII)

Urrusulako Errotia: baiñuetxe izan zan baserrixa**Roberto Altuna****Argazkiak: Roberto Altuna eta Goiena**

Urrusula inguruko mendixetatik jasoten diran urak argindarra sortzeko ebalten dira Olateko zentralian. Baiña, hortik aparte, ur sulfuroso horreik osasunarendako eukain bentajiaz jabetuta, Urrusulako Errotan baiñuak emuten hasi ziran. “Bizi guztian izan da etxeko negoziua. Amaren aurretik amandriak be gertaketan zittuen baiñuak. Uraren tenperatura neurtu eta baiñua hartzeko puntuan izten eben”, gogora ekarri dau han jaixotako Mari Juana Madinabeitiak.

Aitzgain aldetik datorren errekatxora aillegaitten da ura. Metro gutxira dago depositua. Bi metroko sakoneria dako eta betik dago beteta. “Erreakia ur

gutxirekin datorrenian be, betik dago beteta. Eta ura argi-argixa da”, dixo Madinabeitiak.

Hortik, etxe azpittik, sarrerako iturriraiño doa ura. Sasue batian, eskuko bonbiarekin etxiaren goiko aldera jasoten euen ura, terrazara. “Handik bi bide hartzen zittuen urak: hotza zuzenian baiñera gelara eta berotuko zana kaldarara, beroketako. Gero bixak nahasketan ziran”, aittatu dau.

Famosua zan Urrusulako errotako baiñuetxia. Horregatik, oñatiarrez gain, kanpotik be etorten zan jentia: Mondraguetik, Aretxabaletatik, (Koruetatik-eta) eta baitta Leintz Gatzagatik be. Udanaz bestaldeko banaka batzuk be etorten ziran.

Gehixenak, baiña, gizonaek ziran. Sei bat gizon, komedorian, tertulixan” komentau dau Madinabeitiak.

Egunero baiñu bat hartzen euen. 15-20 miñutukua, uretan leporaiño sartuta. Handik urten, izardixak sikatu eta asko faten ziran uhera ordu laurden bat egotera. Gero jaiki eta armozau. Lehenengo aldixan etorrenari bederatzi egunian bederatzi baiñu hartzeia errekomentaitten xakon. Ondo baeguen, bajau egitten xakon zazpira, bostera be bai, eta beste batzuk egitten euen etorri bizikletan errotara, hartu baiñua, zeozer jan ondorian, eta gero etxera. Baiñua barurik hartzen zan eta, normalian, goizian izaten ziran.

“Aittatutako moduan, asko egun bakarrerako etorten ziran, baiña hiru



Urrusulako Errotia baserriaren kanpoaldea

edo bost egun pasaittera etorritakuak be goguan dittut. Horreinddako bi uheko lau logela gittuan etxian”

Uratsaz betik arrautza ustel usaiña dakola esan izan da. Zidarra baltziketan dau; urria, berriz, ez. Barruak garbiketan eta aupatsak botaten lagunketan dau. Azaleko gaitzak (ezemak, soriasisa, erlakaiztenak...) osaketako be ondo etorten da. Erreumiaren kontra be erremedixo ona da. “Gerriko edo belauneko miña eukaiñak edo erreumiarekin egozenak etorten ziran. Orduan, lan haundixa egitten zan baserrixan, eta gerritik beherako miñak arinketara etozenak ziran nagusi”.

“Uratsak usain fuertia dako, eta hori askok ezin dau eran be egin! Behin

kaletar bat etorri zan uratsaren kontuak entzunda eta probau gura ebela esanaz...

— Uratsa eta uratsa entzunda eta...

— Ba, uratsa, hemen dakogu uratsa!

— Guazen ikustera! Eta hori eran leike?

— Bai, horixe! Hori askok eraten daue.

— Orduan, neuk be bai! Beste batzuk egitten daueiña ezgara orainddiok egin barik geratu! Nik erango dot drungo-drungo!

Eran eben eta, haren itto biharra! Pasau eben ratua, baiña formala, e!” kontau dau haren anaia Jose Luisek.

Errotakuak, berriz, normal asko eraten daue, bape kalterik egin barik.

Urrusulako baiñuetxiak 1970era arte iraun eben baiñuak emuten. Urte

hartako Santiago egun seiñalauan izan zan zoritxarreko istripuan hango famelixako hiru lagun hil ziran, ama eta bi seme-alaba, eta ondorioxo dana bertan behera itzi bihar izan euen.

1983ko agustuko uraundittan, baiña, ur eta lokatz ugari sartu zan eta harek instalaziño guztiak jota itzi zittuen. Politto-politto dana bere onera eruaten fan dira etxeakuak. Han dako orainddiok marmolezko bi baiñerak, eskuak garbiketako palangania, atsedem-gelia, ura beroketako kaldaria, ur deposittua eta iturrirra. Urrusulako Errotako bizilagunak orainddiok be etxae ezezkorik emuten, noizian behin, baiñu bat hartzeko tentaziñuari. “Etxekuak, bai”, dixo Mari Juanak.



Uratsaren deposittua



Eskuko bonbia



Ura beroketako kaldaria



Marmolezko baiñeria



Eskuak garbiketako palangania



Atsedem-gelia

FAGOR
PROFESSIONAL



ONNERA GROUP

ANE MERTZERIA



• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

AGENDA

BAKARRIZKETAK

MAIATZAK 9 / 19:30

FutbolisTOK

Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa saioa, futbola eta osasun mentalaren inguruan. **Santa Ana**

BERTSO SAIOAK

MAIATZAK 17 / 19:00

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Sailkapen faseko saioa. Bertsolariak: Aimar Sorazu (Zarautz), Andoni Rekondo (Hernani), June Aiestaran (Beasain), Lierni Rekondo (Lasarte-Oria) Maddi Aiestaran (Beasain) eta Maide Garmendia (Zaldibia). **Santa Ana**

ERAKUSKETAK

MAIATZAK 6-19/18:00-20:00

'Sonidos en el recuerdo'

Javier Soler donostiarraren erakusketa. Antxinako irrati aparailu, magnetofono eta disko-jogailuen erakusketa.

Kultur etxean

MAIATZAK 12

Erroten eguna

San Migel erroten interpretazio zentroa dohainik bisitatzeko aukera egun osoan zehar.

Turismo bulegoan

HITZALDIAK

MAIATZAK 14 / 17:30

Oñatiko errotak

Hizlaria: Tomas Igartua. Turismo bulegoan 17:30 eta Pake Lekun 18:00

MAIATZAK 29 / 19:00

Emakumeen Etxea

Parte-hartze prozesuan adostutakoak aurkezteko saioa. **Eltzian**

JAIALDIAK

MAIATZAK 18

URGAIN EGUNA

9:00 Muntaia auzolanean; 11:00 Pregoia institutuan eta jarraian kalejira musikatua herrigunean zehar; 12:00 Trikitilari gazteak Boga plazatxoan; 13:00 'Urgain 10 urte' abestiarekin dantza plazan; 14:15 Bazkaria; 15:45 Bingoa; 16:00 Haur jolasak; 18:00 DJ festa; 19:00 Desmuntaia auzolanean.

LITERATURA

MAIATZAK 21 / 19:00

Liburu aurkezpena

'Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena' liburua aurkeztuko du Kepa Diegez egileak.

Kultur etxean

MAIATZAK 29 / 16:30

Panpinen pijama-festa

3 eta 5 urte arteko haurrek beren gustuko panpina



MAIATZAK 4 / 12:30

Xabier Ugarteren omenezko kontzertua

Urtarrilean zendu zen Xabier Ugarteren omenezko kontzertua. Oñati Abesbatzak eta Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoiak parte hartuko dute. Sarrera dohainik. Borondatea eskatuko da. **Bidaurretako elizan**

MAIATZAK 15 / 10:00

Zinema barrutik. Pelikula bat nola egiten den.

Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta, Aitor Arregi Galdos zinegileak pelikula bat egiteko prozesua azalduko du. Moriarti ekoiztetxeko kidea izateaz gain, Mondragon Unibertsitateko Ikus-Entzuneko Komunikazioko irakaslea ere bada Arregi.

Santa Ana antzokia




ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20



Kultur ekitaldiei buruzko informazioa
eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



MAIATZAK 23 / 18:00

Ganbarako ipuinak

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa Odei Arregiren (Bapatean Zirko konpainia) eskutik. Ganbaran ditugun traste zaharren inguruko istorioak kontatuko ditu. Gonbidapenak maiatzaren 13tik aurrera. **Udal liburutegian**

eramango dute liburutegira,
gaua bertan igaro dezaten
Haur liburutegian.

MUSIKA

MAIATZAK 5 / 19:00

Debagoieneko Haur eta Gazte abesbatzen topaketa

Oñati, Aramaio, Arrasate eta Bergarako abesbatzak. Eta gonbidatu bezala, Donostiako Easo Txiki.

Santa Ana antzokian

MAIATZAK 6-11

Musika Astea

Egunero (17:00-20:00) musika eskolako ikasleen entzunaldiak Santa Anan eta Gaztelekuan.

Maiatzaren 11n irakasleen emanaldia (12:30)

Gaztelekuan.

MAIATZAK 19 / 19:30

5 izar

Ganbara Faktoriaren (Ganbara, Hots eta Ganbara Txiki abesbatzak eta Aequus Ensemble orkestra) bazkide kontzertua.

San Migel Parrokian

MAIATZAK 26 / 12:00

Musika Banda

Musika bandaren kontzertua. Aurretik kalejira egingo du auzoan barrena.

Errekalden

MAIATZAK 30 / 18:00

Aloña Abesbatza

Pake Lekuko koruaren kontzertua.

Santa Ana antzokian

TAILERRAK

MAIATZAK 4 / 10:00-14:00

Konstelazio familiarrak

M^a Luisa de Dios García adituak gidatutako saioa Eltzia 'Artez Hezten' gelan. Lekua erreserbatzeko deitu: 628212839. **Eltzian**

ZINEA

MAIATZAK 22 / 19:30

ZINEGOAK Hedapena

Bilboko LGTBIQ+ Zinema Jaialdira aurkeztutako lanen mostra bat (70-90 minutu) ikusgai.

Kultur etxean



MAIATZAK 3 - 6

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: Pequeñas cartas indiscretas

Haurrak: Ez dago emanaldirik



MAIATZAK 10 - 13

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: El especialista

Haurrak: Ez dago emanaldirik



MAIATZAK 17 - 20

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: La casa

Haurrak: Ez dago emanaldirik



MAIATZAK 24 - 29

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: Nina

Haurrak: Ez dago emanaldirik



Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00),

igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / Ikuslearen Eguna)

Haurrak: Larunbata eta Igandea (17:00)



FARMAZIAK

ANDUAGA

San Lorentzo 3

943 78 21 16

MAIATZAK 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30.

EKAINAK 7, 8 eta 9.

IGARTUA

Kale Zaharra 1

943 78 01 22

MAIATZAK 3, 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 31.

EKAINAK 1 eta 2.

GARATE

Kale Barria 42

943 78 05 58

MAIATZAK 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.

EKAINAK 3 eta 4.

JULDAIN

Kale Barria 6

943 78 11 28

MAIATZAK 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.

EKAINAK 5 eta 6.



MERKATU TXIKIA

GARAJEA salgai Kale

Zaharrea. 17m². Deitu:

605811762

ALOKATZEKO etxe bila

dabilen alaba bakarreko familia gara. Biok lanean.

Deitu: 632696233.

GARAJEA alokairuan

ematen da San Lorentzo

auzoan. Deitu: 617238637.

ETXEBIZITZA alokairuan

hartu nahi du 2 seme-

alabadun familiak. Deitu:

624804598 / 664347798.



ODOL ATERALDIA

MAIATZAK 17

16:30-20:30, MU-ko

Enpresagintza fakult.

Hitzordua hartzeko:

943 00 78 84.

2 JOERA:

FORMA ORGANIKOAK

Preferentzia organikoetan finkatzen da, pertsonalitatearekin batera.

1 JOERA:

BOUCLÉ

Kizkur itxurako ehuna besaulkietan, kuxinetan, buruetan...

KROMATUAK ETA METALAK

Kromatzea ez da bainuetarako eta sukaldeetarako bakarrik.

3 JOERA:

**Azken joerak, beti bezala,
zugandik gertu.**